

ENPRESEN konfiantza

2017KO 4. HIRUHILEKORAKO
IGURIKIMENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa



LABORAL
kutxa


2017KO 4. HIRUHILEKORAKO
IGURIKIMENAK



1 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Industria Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, 2017ko laugarren hiruhilekorako dituzten igurikimenen berri izateko. Bada, ondorio interesgarriak eman ditu, aurreko hiruhilekotik beherakada txiki bat sumatu baita. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu.

Enpresen ingurune ekonomikoari buruz dituzten igurikimenak direla eta, % 65,2k uste dute egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 24,4k hobetu egingo dela. Ikus daitekeenez, ikuspegi optimista da nagusi, eta, geroago ikusiko dugunez, aztertutako gainerako aldagai guztietan ere islatzen da.




2 | FAKTURAZIOA

Enpresek fakturazioari buruz dituzten aurreikuspenak aldekoak dira, 2017ko laugarren hiruhilekoari begira. Hala, % 54,4ren iritziz, fakturazioan ez da aldaketarik egongo, eta % 35,2ren ustez, hobera egingo du. Beraz, fakturazio txarragoa espero duten enpresak % 10,5 baino ez dira.




3 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2017ko laugarren hiruhilekoan espero den jardueraren bilakaeraren aurrean, % 59,9k uste dute ez dela aldaketarik egongo, eta % 28,8k hobera egingo duela. Laginaren % 12k baino ez du uste jarduerak okerrera egingo duela.




4 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: fakturazioa eta jarduera hobetuko dela uste dutenek gehiago saltzea ala garestiago saltzea espero dute? Ildo horretan, emaitzek diote eskabideen bolumena hobetzeko igurikimen argia dagoela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 56,9k uste du ez dela aldaketarik egongo, eta % 32,9k hobera egingo duela. % 10,2k baizik ez du uste eskabideen bolumenak behera egingo duela.




5 | PREZIOAK

Prezioei dagokienez, ordea, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, inkestagileen % 80,5ek uste dute prezioek bere horretan jarraituko dutela 4. hiru hilekoan. Gainerako enpresetatik, % 10,5ek uste dute prezioak handiagoak izango direla; gainerako % 11,8ak, berriz, txikiagoak izango direla.



6 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen errentagarritasunari buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 69,8ren arabera ez da aldaketarik egongo; enpresen % 18,2k uste du handiagoa izango dela eta % 12k errendimendu txikiagoa lortuko dutela.



7 | INBERTSIOA


Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboa eta, ondorioz, langileen kopurua handitzeko asmoa dutela.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 72,3k uste du eutsi egingo diotela 2017ko 4. hiruhilekoan. % 20,2k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 7,5ak uste du behera egingo duela.



8 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 77,3k erantzun du enpleguan ez dutela aldaketarik espero; % 18,8k langile taldea handitzeko itxaropena du eta % 4,7k guztiz kontrakoa (plantilla murriztu egingo duela).




2017KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



9 KONFIANTZA INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztutzen baditugu, **57,8**ko konfiantza-indizea lortzen dugu. Horrek esan nahi du aurreko hiruhilekoarekiko beherakada txiki bat egon dela, orduko hartan **59,5**eko balioa lortu baitzen. Interpretazioa hauxe da: enpresek ekonomiaren bilakaerari buruz duten ikuspegia ez dela hain optimista, 2017ko azken hiruhilekoari begira. Alabaina, indizearen balioa 50etik gora dagoenez, hedatze-eremuan gaude, beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin koherentzian. Espainian, esaterako, 55,3ko datua lortu zen abuztuan, eta 56,7koa Eurogunean, hil berean.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 52,8k uste du bere horretan jarraitu dutela eta % 30,2k hobera egin dutela. % 17ren iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




10 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 67,8 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 0,5 artean. Bestalde, % 5,7k % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




11 BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 80,4ren ustez, bezeroei kobratzeko epean ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta luzatu egin da enpresen % 13,4ren esanetan. Hala, enpresen % 6,2ren esanetan, kobratzeko epea laburtu egin da.




12 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestagileen % 67,5ek erantzun du bankuen finantzaketa eskuratzeko aukerak ez duela aldaketarik izan azken urtean. Gainerako enpresei dagokienez, % 22,2k dio hobetu egin dela, eta % 10,3k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.



13 | LEHENGAIEN ETA PETROLIOAREN PREZIO TXIKI ERLATIBOAREN ERAGINAK

Laugarren hiruhilekoaren inguruko igurikimenei buruzko laginean beste galdera bat ere txertatu dugu, lehengaien prezio txikiak (erlatiboki, historiari begira) zer eragin duen jakiteko. Ikus daitekeenez, enpresen ia erdiaren ustetan, ez du inolako eraginik; % 39k, berriz, eragin positiboa edo oso positiboa duela adierazi du.






2017AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN DIAGRAMA

14 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Diagrama honetan, aztertu ditugun azken bi hiruhilekoetako igurikimenen adierazle partzialen balioa eta osoko balioa ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaio inkesta.
